



EAEko esportazioak %12,7 gutxitu ziren urtarrilean

Ondasunen esportazioa atzerrira
Urte bakoitzeko urtarrila. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Urtarrilean, EAetik atzerrira bidalitako ondasunen esportazioen balioak %12,7 jaitsi zen, aurreko urteko lehen hilabetearen aldean. Hala ere, jaitsiera hori gorabehera, zifra absolutuetan lortutako gutzitako emaitza (2.376 milioi euro) urtarri bateko bigarren kopururik handiena da, aurreko urtean lortutakoaren ondoren.

Turismoen matrikulazioa jaitsi zen Euskadin

EAEn matrikulatutako turismoak
Urte bakoitzeko otsaila




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratu berri duen informazioaren arabera, EAEn 2.215 turismo saldu ziren otsailean, aurreko urteko aldi berean baino %1,3 gutxiago. Jaitsiera horrekin, baieztatzen da lortutako erregistroak oso urrun daudela pandemia aurreko urteetan saldutako kopuruetatik.



Hoteletan igarotako gaualdiak berriro hazi dira

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak




Iturria: Eustat.

EAEko hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %1,9 gehitu ziren otsailan aurreko urteko aldi beraren aldean. Hori horrela izanda, hazkunde erritmoa moteldu egin da, nahiz eta erregistratutako 408.000 gaualdiak otsail batean jasotako kopururik handiena izan.

Industriaren prezioek behera egin dute berriro

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

EAEko industriaren prezioek %6,6 egin zuten behera otsailan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Jaitsiera horretatik, energia izan zen, azken hilabeteetan bezala (-%25,8), beherakada horren erantzule nagusia, eta horrekin batera, bitarteko ondasunak (-%0,7) eta kontsumoko ondasunak (-%0,4).